



LAGUNTZARAKO ESKULIBURUA
BiLA aplikazioa-
Laguntza Programen Plataforma Berria

Lantik S.A.



AURKIBIDEA

1	SARRERA	2
1.1	<i>Dokumentuaren helburua</i>	2
1.2	<i>Aplikazioaren funtzionaltasunen laburpena</i>	2
1.3	<i>Gutxieneko betekizunak</i>	2
1.4	<i>Aldez aurreko eskakizunak</i>	2
1.5	<i>Aplikazio honen instalazioaren aurretiko egiaztapenak</i>	8
1.6	<i>Arazorik badut</i>	10
2	DESKARGATZEA ETA INSTALATZEA	10
2.1	<i>Aplikazio honen programa deskargatzeko jarraibideak</i>	10
2.2	<i>Aplikazio honen programa instalatzea</i>	10
2.2.1	<i>Windows eta Linux</i>	10
2.2.2	<i>Mac OS</i>	13
3	APLIKAZIO HONEN PROGRAMA ERABILTZEA	14
3.1	<i>Programaren funtzionaltasunak</i>	14
3.2	<i>Tresna-barrako ikonoen deskribapen laburra</i>	15
4	SORRERA ETA AURKEZPENA	22
4.1	<i>Aurkezpen telematikoa programatik</i>	22
4.2	<i>Aitortzaileen identifikazioa</i>	24
5	Informazio gehiago	24
5.1	<i>BiLAren tauletara gehitutako funtzionaltasunak</i>	24

1 SARRERA

1.1 Dokumentuaren helburua

BiLA, Bizkaiko Laguntza Aplikazioa, edozein pertsonak bere ordenagailutik eta gutxieneko eskakizun batzuk beteta, aitortpena bete eta aurkeztu ahal izateko diseinatu den programa da.

1.2 Aplikazioaren funtzionaltasunen laburpena

Eredu guztietarako plataforma bakarrerako, dagozkion ekitaldi eta aldiekin, plataformak aukera ematen du ereduak/ekitaldiak instalatzeko eta desinstalatzeko deklaratzailerai alta emateko, aurkezle anitzetarako, baliabideak eta bestelako idatziak sortzeko, aurretik instalatutako eredu adierazpenak betetzeko...

1.3 Gutxieneko betekizunak

Programa erabiltzeko beharrezko ekipamendua:


- Java 1.8.0_25 makina birtuala
- Gutxieneko 512 MB-ko RAM memoria (Gomendagarria: 1024 MB izatea)
- Sistema eragileak:
 - Windows Vista, Windows 7, Windows 8 eta bateragarriak.
 - GNU/Linux
 - Apple Mac OS X bateragarriak java JDK 1.8-rekin
- 90 MBko disko gogorreko gutxieneko espazioa, hasierako instalaziorako eta programaren ondoko funtzionamendurako.
- PDF dokumentuaren software nabigatzailea.
- 1024x768 bereizmeneko pantaila. (Gomendagarria: 1280x1024)
- Teklatu espainiarra

1.4 Aldez aurreko eskakizunak


Lehenengo eta behin, egiaztatu behar da Java ote duen instalatuta eta, instalatuta badu, bertsioa ikusi beharko da.

Horretarako:

- **Windows.**
Honela: Inicio (Windowsen sinboloa) -> Panel de Control -> Java




Aginte-panela kategorien arabera antolatuta edukiz gero, “Java” “Programas”en barruan dago.




Javaren aginte-panelaren barruan, egin klik “Acerca de”n, eta egiaztatu Javaren 1.8.0_25en ondoko bertsioa duela.



Azkenik, Java ondo instalatuta dagoela eta laguntza-programen plataformatik irisgarria dela egiaztatzeke, ireki "terminal" bat eta, horretarako, sartu honela: Inicio (Windowsen sinbologia) -> Ejecutar -> "cmd"




Eta ateratzen den leihoan "java -version" agindua exekutatu, java exekutagarriaren bertsioa egiaztatzeke.



- **Linux.**
Linux sistemako idazmahaiaren ingurune anitzak direla eta, Javaren bertsioa eta funtzionamendu egokia egiaztatzeko modurik errazena terminalaren bidezkoa da. Horretarako, terminalaren instantzia bat irekiz eta “java -version” exekutatzuz, bertsioa eskuratuko dugu.

```
root@b094720-ubuntu: /
root@b094720-ubuntu: /# java -version
java version "1.8.0_25"
Java(TM) SE Runtime Environment (build 1.8.0_25-b17)
Java HotSpot(TM) Server VM (build 25.25-b02, mixed mode)
root@b094720-ubuntu: /#
```


- **Mac OS.**
Appleren ikonoaren bidez, pantailaren goialdeko ezkerreko ertzean, -> Preferencias del Sistema...




Egin klik Javaren ikonoan, Javaren aginte-panelean sartzeko.



Aginte-panela beste leiho batean agertuko da eta, bertan, “Acerca de” sakatuz, bertsioa egiaztatu ahalko dugu:



Azkenik, Java ondo instalatuta dagoela eta laguntza-programen plataformatik irisgarria dela egiaztatzeko, ireki “terminal” bat eta, horretarako, sartu honela: Ir -> Utilidades -> Terminal



Eta ateratzen den leihoan “java -version” agindua exekutatu, java exekutagarriaren bertsioa egiaztatzeko.

```
administrador — bash — 80x24
Last login: Thu May  7 15:17:50 on ttys001
B098421:~ administrador$ java -version
java version "1.8.0_40-ea"
Java(TM) SE Runtime Environment (build 1.8.0_40-ea-b23)
Java HotSpot(TM) 64-Bit Server VM (build 25.40-b25, mixed mode)
B098421:~ administrador$
```

Edozein egiaztapenetan emaitza negatiboa izan bada, dela java instalatuta ez izateagatik, dela eskatutako bertsioa baino bertsio baxuagoa izateagatik:

- Windows eta Linux.

<http://www.java.com> webetik, azken JREren instalazio azkarrerako eta ondoren egiaztatzeko eta ziurtatzeko eskuliburueterako sarbidea dago.

Descarga gratuita de Java

» [¿Qué es Java?](#) » [¿Tengo Java?](#) » [¿Necesita ayuda?](#)

- Mac OS.

Mac OS sistema eragilearen kasuan, 1.8ko gutxieneko JDK eduki behar da, funtzionamendu egokirako. Horretarako, <http://www.oracle.com/technetwork/java/javase/downloads/index.html> webetik, deskarga-aukeretara jotzen da.

Sarbide-ikonoaren gainean sakatuz:

Java SE Downloads



Bertsioaren eta sistema eragilearen hautaketa-pantailara eramango gaitu.

Java SE Development Kit 8u45
You must accept the Oracle Binary Code License Agreement for Java SE to download this software.


Accept License Agreement
 Decline License Agreement

Product / File Description	File Size	Download
Linux x86	146.89 MB	jdk-8u45-linux-i586.rpm
Linux x86	166.88 MB	jdk-8u45-linux-i586.tar.gz
Linux x64	145.19 MB	jdk-8u45-linux-x64.rpm
Linux x64	165.24 MB	jdk-8u45-linux-x64.tar.gz
Mac OS X x64	221.98 MB	jdk-8u45-macosx-x64.dmg
Solaris SPARC 64-bit (SVR4 package)	184.76 MB	jdk-8u45-solaris-sparcv9.tar.gz
Solaris SPARC 64-bit	92.9 MB	jdk-8u45-solaris-sparcv9.tar.gz
Solaris x64 (SVR4 package)	139.51 MB	jdk-8u45-solaris-x64.tar.Z
Solaris x64	95.88 MB	jdk-8u45-solaris-x64.tar.gz
Windows x86	175.98 MB	jdk-8u45-windows-i586.exe
Windows x64	180.44 MB	jdk-8u45-windows-x64.exe

1.5 Aplikazio honen instalazioaren aurretiko egiaztapenak

- Antibirus-sistema batzuek, analisisen artean, “*.jar” fitxategien egiaztapena dute lehen exekuzioan. Anlisi horren ondorioz, laguntza-programen plataformaren lehen exekuzioa atzeratu egingo da ordenagailua berrabiatzen den bakoitzean. Komeni da plataforma instalatu den karpeteraren salbuespena gehitzea.
- Baliteke aplikazioa abiatzean esatea ez dugula Interneterako konexiorik eta, plataforma berrabiarazita ere, mezua agertzen jarraitzea.
 - Konexioa plataformaren ezarpenetik proba dezakegu.
 - Halaber ziurtatuko dugu ordenagailuak Interneterako konexioa duela.

Konexioaren arazoak jarraitzen badu, baliteke izatea erabiltzaileak ez dizkiolako Javari beharrezko baimenak eman plataforma exekutatu zuen lehen aldiz. Javari baimen horiek emateko (plataformarekin batera banatzen den makina birtuala), pantaila hau agertuko da plataformaren lehen exekuzioan:



Kasu batzuetan, antzeman da antzeko leiho bat ireki daitekeela, baina aukera gutxiago dituena, eta hori izango litzateke gero plataforma Internetekin konexioa ahalbidetzen ez duena, eguneratzeen FTPekin.

Hori gertatu bada, konpondu ahalko dugu eta, horretarako, firewallaren ezarpenean Java honetarako sarrera bilatuko dugu eta exekutatzeko baimenak eman. Ezarpen hori hemen dago:

Panel de Control → Firewall de Windows → Permitir un programa o una característica a través de Firewall de Windows.

Permitir que programas se comuniquen a través de Firewall de Windows

Para agregar, cambiar o quitar programas y puertos permitidos, haga clic en Cambiar configuración.

¿Cuáles son los riesgos de permitir que un programa se comuniquen?

Cambiar la configuración

Por seguridad, el administrador del sistema administra ciertas configuraciones.

Programas y características permitidos:

Nombre	Dominio	Doméstica/trab...	Pública	Directiva de gru...
<input type="checkbox"/> Java(TM) Platform SE binary	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	No
<input type="checkbox"/> Java(TM) Platform SE binary	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	No
<input type="checkbox"/> Java(TM) Platform SE binary	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	No
<input type="checkbox"/> Java(TM) Platform SE binary	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	No
<input type="checkbox"/> Java(TM) Platform SE binary	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	No
<input type="checkbox"/> Java(TM) Platform SE binary	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	No
<input checked="" type="checkbox"/> Java(TM) Platform SE binary	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	No
<input checked="" type="checkbox"/> KMS Emulator: KMSELDI.exe	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	No
<input type="checkbox"/> LANDesk Advance Agent	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	Sí
<input type="checkbox"/> LANDesk Advance Agent (64 bits)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	Sí
<input type="checkbox"/> LANDesk Message Service	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	Sí
<input type="checkbox"/> LANDesk Ping Discovery Service	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	Sí

Modificar un programa

Puede permitir la comunicación con este programa desde cualquier equipo, incluso aquéllos en Internet o sólo los que pertenezcan a su red.

Nombre:

Ruta de acceso:

¿Cuáles son los riesgos de desbloquear un programa?

Puede elegir los tipos de ubicación de red a los que desea agregar este programa.

Tipos de ubicación de red...

Elegir tipos de ubicación de red

Permitir a este programa o puerto comunicarse mediante Firewall de Windows para las ubicaciones de red seleccionadas:

Dominio: redes del trabajo que están conectadas a un dominio

Doméstica/trabajo (privada): redes domésticas o del trabajo en cuyos usuarios y dispositivos confía

Públicas: redes en lugares públicos como aeropuertos o cafeterías

¿Qué son las ubicaciones de red?

Edozein sarreraren baimenak aldatu ahal izateko, lehenengo ezarpenaren aldaketan egingo dugu klik. Gero, editatu nahi dugun Javaren sarrera bilatuko dugu (Xehetasunetan klik eginez, ibilbidea ikusiko dugu). Sareko kokapen-motetan... egiaztatuko ditugu dauzkan baimenak eta baimena emango diegu Doméstica eta Pública aukerei.

1.6 Arazorik badut

programak@bizkaia.eus

2 DESKARGATZEA ETA INSTALATZEA





2.1 Aplikazio honen programa deskargatzeko jarraibideak

BiLA plataformaren instalagarriak Bizkaiko FTP publikoan daude eskuragarri. Honako hau da URLa:

ftp://ftp.bizkaia.eus/public/ogasuna_eta_finantzak/bila/Instalador/

Edozein web-nabigatzailearen bidez, aurreko helbidea sartuta, 4 exekutagarri izango ditugu eskuragarri, eta, horietatik, gure lan-ingurunerako egokiena hautatu beharko dugu.

Name


-  [BILA_LINUX_FULL32.jar](#)
-  [BILA_LINUX_FULL64.jar](#)
-  [BILA_MAC_FULL.dmg](#)
-  [BILA_WIN_FULL.exe](#)

Nahi dugunaren gainean sakatuz gero, deskarga hasiko da nabigatzailearen bitartez.


2.2 Aplikazio honen programa instalatzea

2.2.1 Windows eta Linux

Deskarga osoa egin ondoren, deskargatutako fitxategia exekutatuta, honako pantaila hau agertuko zaigu:




“Siguiete” sakatuz gero, laguntza-programaren plataforma zein bidetan instalatu nahi dugun eskatuko digu.




Oharra: sartutako datuak, PDFak, adierazpenak... ez dira karpeta honetan gordetzen.


Karpeta hori ez badago, informazio-ohar bat agertuko zaigu eta sortzeko eskatuko digu.




Aceptar sakatu ondoren, eta bilakaeraren barraren aurrerapenaren ondoren, instalazioa bete dela esango digu, eta berriro ere eskatuko digu “Siguiente” sakatzeko.



Programa instalatuta dagoela, instalazio-programak zuzeneko sarbideak eratzten ditu eta, horretarako, erabiltzaileari eskatzen dio ea idazmahaiari sartu nahi ote duen eta Inicio menuaren zein taldean.




Eta, horrela, amaitu egiten da laguntza-programen plataforma berriaren instalazioa




2.2.2 Mac OS

Deskarga bete denean:




Deskargatutako fitxategia exekutatuta, honako pantaila hau agertuko zaigu:



Bertan, BiLA aplikazioa herrestan eramanaz Aplikazioen sarbidera, Aplicaciones karpeta instalatuko zaigu. Hala egin ondoren, "Finder" menutik, Ir -> Aplicaciones bidez sartuz:



BiLA aplikazioa agertuko zaigu.



3 APLIKAZIO HONEN PROGRAMA ERABILTZEA

3.1 Programaren funtzionaltasunak

Deklaratzaileei zerga-betebeharren betearazpena errazteko, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailak beren esku jartzen du Laguntza Programen Plataforma, adierazpenak betetzeko.

Laguntza honetan aurkituko duzun informazioa programaren funtzionamendu orokorrari buruzkoa da. Ez horrekin bete daitezkeen adierazpenak betetzeko araudiari edo jarraibideei buruzkoa, ezaugarri hori eskaintzeak izango lukeen konplexutasuna kontuan hartuta.


Programaren bidez deklaratzailer askoren eta beren adierazpenen gaineko informazioa bete eta bildu ahalko da. **Laguntza Programak**, erabiltzaileak emandako datuetatik abiatuta, honako zeregin hauek betetzen ditu:

- Eredu/ekitaldien instalazioa/desinstalazioa, gero betetzeko
- Deklaratzailearen beharrezko datuak eta beren adierazpenak grabatzea, gero berrikusteko.
- Ekitaldi, eredu eta aldi jakin baten adierazpenak inprimatzea, aurkezpena egiteko balioko dutenak.
- Fitxategi indibiduala eskuratzea: adierazpen bakarra edo kolektiboa: ekitaldi, eredu eta aldi beraren adierazpen bat baino gehiago, Internet bidez transmititu ahalko dena.
- Adierazpenak inportatzea/espordatzea, datuak trukatzeko beste BiLA plataforma batzuekin.
- Formatu ofizialaren fitxategiak inportatzea.
- Fitxategi telematikoak aztertzea.
- Baliabideak eta beste idatzi batzuk betetzea eta, gero, inprimatzea.

Leiho eta fitxategietan, saguaren eskuineko botoiaren bidez testuinguruaren araberako menua ageriko da, zenbait aukera aktiborekin, besteak beste, edizio-tresnak (kopiatu, itsatsi, ebaki etab.), fitxategiaren araberako aldagaiak.

3.2 Tresna-barrako ikonoen deskribapen laburra

Laguntza-programen plataforma berriaren pantaila nagusia honako atal hauek osatzen dute:



Tresna-barran, pantaila guztietan, honako aukera hauek izango ditugu:






- **Laguntza:** Laguntza-sistema hau plataformarena berarena da. Laguntza honetan aurkituko duzun informazioa programaren funtzionamendu orokorrari buruzkoa da. Ez harekin bete daitezkeen adierazpenak betetzeko araudiari edo jarraibideei buruzkoa; informazio hori beharrezkoa ikusi den kasuetan “Laguntzailea” atalean ereduaren betearazpenaren barruan dago eskuragarri.

Kontsulten arreta ere barne dago.


- **Irten:** Laguntza-programen plataformaren itxiera. Kontuan hartzekoa da gorde ez diren aldaketak galdu egingo direla.


Hurrengo mailan, tresnak, utilitateak eta aukerak bakarrik eskuragarri plataformaren hasiera-pantailatik.



- **Segurtasun-kopiaren kudeaketa** : Disketearen ikonoan sakatuz, segurtasun-kopia kudeatzeko pantailara sartuko gara. Pantaila horretatik, segurtasun-kopiak berreskuratu eta sortu ahalko ditugu.
- **Instalazioaren eta eguneratzeen kudeaketa** : Tresnen ikonoan sakatuz, plataformaren instalazioa eta eguneratzeak eta ereduak kudeatzeko pantailara sartuko gara. Pantaila horretatik, eredu-ekitaldiak gehitu, desinstalatu eta eguneratu eta plataforma etorkizuneko bertsioetara eguneratu ahalko ditugu.
- **Ezarpena** : Ezarpenaren pantailatik, plataforma konfiguratu ahalko dugu. Zenbait aukera, besteak beste, hizkuntza (euskara, gaztelania), lan egiteko modua (lana lokalean edo sarean), Interneteko konexioa (aktibatuta, desaktibatuta, proxyaren ezarpena), segurtasun-kopiak (gorde beharreko segurtasun-kopien kopuruaren ezarpena eta kokapenerako karpeta) eta aplikaziotik Tab edo Intro bitartez mugitzeak, pantaila honetatik konfiguratu daitezke.

Pantaila honetako edozein aukera aldatu ondoren, plataforma berrabiarazi beharko da, aldaketek ondorioak izan ditzaten.

- **Utilitateak** : Menu zabalgarria adierazpenen, idatzien aukerekin, aurreko ekitaldietako datuak berreskuratzeko aukerarekin... Gaietan sakatuta, menua zabalduko da eta, bertan, egin nahi dugun aukera hautatu ahalko dugu.




- **Aurreko ekitaldietako programen datuak berreskuratu**: Aukera honen bidez, aurreko ekitaldietako programen datuak berreskuratu ahalko ditugu. Eredua hautatuko dugu:
 - Plataforma instalazio-bidea aurkitzeko gai bada, zer datu berreskuratu nahi den kontsultatuko digu.
 - Plataforma bidea aurkitzeko gai ez bada, "Aztartu" pantailaren bidez hautatu beharko dugu.
- **Formatu ofizialeko fitxategiak inportatu**: Aukera honen bidez, formatu ofizialeko fitxategiak inportatu ahalko ditugu. Eredu-ekitaldia eta fitxategia hautatuko dugu "Aztartu" pantailarekin. Plataformak deklaratzailerik eta adierazpenen zerrendara fitxategi horren datuak gehitzen ditu.
- **Aurretik plataformarekin esportatutako aitorpenak berreskuratu**: Adierazpenen zerrendatik, adierazpenak esportatzeko aukera dago. Sistema honen helburua da adierazpenak trukitzea (eta deklaratzailerik), plataformen bertsio berdinetatik.

Plataforma batetik aurretik esportatutako fitxategia hautatuko dugu eta, horrela, datuak deklaratzailen eta adierazpenen zerrendara gehituko ditugu.

- **Fitxategi telematikoak arakatu:** Formatu ofiziala duen fitxategi batean informatutako datuak ikusi ahal izateko, aukera horretara joko dugu. Zuhaitz bat erakutsiko digu, fitxategian sartutako adierazpen, partida eta datuekin.
- **Errekurtsoak eta beste idazkiak:** aukera honetatik, zuzenketa-idazkiak, errekerimenduen erantzuna eta berraztertzeo errekurtsioak bete eta inprimatu ahalko ditugu. Aukeraren barruan gaudela, zerga-kontzeptua, zergaduna (errekurtsio-egilea), dokumentu-mota aukeratu beharko ditugu. Behar den kasuetan, organoa eskatuko da.

Hurrengo maila batek deklaratzailen eta adierazpenen kudeaketan sartzeko aukerak erakusten ditu.



- **Aitortzaileak:** Deklaratzaileen kudeaketara sarbidea. Sartzean, pantaila bat agertuko zaigu eta, bertan, plataforman alta eman duten deklaratzailen guztiak. IFZren, izen-abizenen edo izen sozialaren edozein partikula teklatuta, zerrenda dinamikoki iragazten joango da.

Pantaila horretatik, honako hauek egin ahalko ditugu:

- **Berria:** Deklaratzaile berriari alta eman. Botoi horretan sakatzean, inprimaki batean sartuko gara eta, bertan, datuak bete beharko ditugu, gero adierazpenak betetzeko. Eremu guztiak ez dira derrigorrezkoak, deklaratzailen bati alta emateko; IFZ/IFK, izena eta bi abizen edo izen soziala beteta nahikoa da. Gero, adierazpena betetzeko orduan, datu gehiagoren beharraz, deklaratzaileraren betetzeko asmotan sartzeko informazioa emango zaigu.
- **Aldatu:** Deklaratzaile bat hautatuta, Aldatu botoia sakatzean, aldaketa egiteko sartuko gara. Saguaren ezkerreko botoiaren klik bikoitzaren bidez, aukera bera izango dugu.

- **IFZ aldatu:** IFZ/IFK plataforman bakarra denez, ezin dira egon 2 deklarataile baino gehiago IFZ/IFK berarekin, eta adierazpen, idatzi eta bete beharreko gainerakoak IFZ/IFK horri lotuta daudenez deklarataile baten IFZ/IFK ordezkatu ahal izateko, aukera hori exekutatu behar da. Beste IFZ/IFK berri bat eskatuko digu, eta plataformaren betearazpen guztietan ordezkatu du.
 - **Bikoiztu:** Plataforman deklarataileak errazago sartzeko, Bikoiztu botoiaren bidez IFZ/IFK berria eskatuko digu deklaratailearen gainerako datuetarako (ez dira bikoiztuko ez adierazpenak ez idatziak); deklarataile berriari alta emanda bikoiztuko dira.
 - **Ezabatu:** Hautatutako deklarataile guztiak ezabatu egingo dira, eta, horiek batera, beren adierazpenak eta baliabide eta idatziak.
 - **Idazkiak:** Idazkiak botoia sakatuz, Idazkien zerrendara sartuko gara, deklaratailea hautatuta eta zerrenda iragazita.
 - **Aitorpenak:** Aitorpenak botoia sakatuz, Aitorpenen zerrendara sartuko gara, deklaratailea hautatuta eta zerrenda iragazita.
- **Aitorpen ereduak:** Aukera honetatik, plataforman instalatutako eredu-ekitaldien zerrendara sartuko gara. Bertan, zenbat adierazpen bete diren jakinaraziko zaigu.

Honako hauek egin ahalko ditugu:

- **Eredu berriak instalatu:** Beharbada une horretan behar dugun eredu-ekitaldien bat instalatu ez dugunez, "Eredu berriak instalatu" botoian sakatuz, Instalazio eta eguneraketa pantailako eredu ez-instalatuaren erlaintzera sartuko gara. Horrela, aurretik instalatu ez diren eta beharrezko ditugun ereduak instala ditzakegu.
 - **Idazkiak:** Aukera honetatik, Idazkien pantailara sartu ahalko gara.
 - **Aitorpenak:** Eredua-ekitaldia hautatuta eta Aitorpenak botoia sakatuta, edo klik bikoizta eginda erregistroan, aitorpenen pantailara joango gara, eredu-ekitaldi horren arabera iragazitako zerrendarekin.
- **Aurkezleak:** Eredu-mota batzuetarako, adierazpenaren aurkezlearen berri eman behar da; aurkezpena egitean eskatuko da. Plataformak aukera ematen du aurkezle bat baino gehiago altan emateko eta bat aurretik zehaztuzat izateko, hori edozein unetan aldatu ahalko dela.

Aurkezleen zerrendatik honako aukera hauek izango ditugu:

- **Berria:** Aurkezle berriari alta eman. Botoi hau sakatzean, inprimaki batera sartuko gara eta, bertan, aurkezle berriaren datuak bete beharko ditugu.
- **Aldatu:** Aurkezle bat hautatuta, Aldatu botoia sakatzean, aldaketa egiteko sartuko gara. Sagueren ezkerreko botoiaren klik bikoitzaren bidez, aukera bera izango dugu.
- **Ezabatu:** Aurkezle bat hautatuta, ezabatu egingo da.
- **Lehenetsia jarri:** Aurkezteko unean aurrez hautatutako aurkezlea izateko, aurkezle bat hautatuko dugu aurretik zehaztuzat. Aurkezteko orduan, beti alda daiteke aurkezle horren hautaketa.

- **Egindako bidalketa zuzenak:** Plataformak aukera ematen du zuzenean bidaltzeko adierazpena Ogasun eta Finantza Sailera, egun arteko fitxategia sortzeko sistemaren, BizkaiBaiko nabigazioaren eta adierazpena sartzearen ordez.

Plataformak ez du adierazpenaren egoeraren berri; egoera ikusteko, BizkaiBaira sartu behar da eta, plataformak itzultitako bidalketa-kopuruaren arabera, kontsultatu zein den egungo egoera.


Egindako bidalketa bakoitza plataforman gordetzen da, gerora kontsultak egiteko. Menuko aukera honetan, deklaratuzailearen partikularen arabera iragazki ahalko dugu, eta BizkaiBaik dinamikoki eginiko bidalketa-kopuruaren arabera eta ekitaldiaren, ereduaren, aldiaren eta daten tartearen arabera.


Bidalketa bakoitzetik, ahal denean, adierazpenaren inprimakia gordetzen da, bai eta BizkaiBairi bidalitako fitxategia eta bidalketaren frogagiria ere.

Plataforman egindako bidalketa-erregistroen zerrenda hori asko handitu daitekeenez, 2 aukera daude hura "liberatzeko".


- **Eranskinak kendu:** Egindako bidalketen gaineko kontrola mantentzen jarraitzeko, baina erantsitako fitxategiek betetako espazioa arintzeko, aukera horren bidez, taulan zerrendatutako bidalketen fitxategi erantsiak ezabatuko dira (Frogagiria, Aitorpenaren inprimakia eta Aitorpenaren fitxategia). Bidalketen zerrenda iragazita badago, iragazitako erregistroen fitxategi erantsiak baino ez ditu garbituko.
- **Ezabatu:** Aukera honetatik, erantsitako fitxategiak eta egindako bidalketen erregistroak ezabatuko ditugu. Adierazpenak ez dira ezabatzen, bakarrik egindako bidalketaren historiala.

Maila berean, erabiltzailearen gustura sarbide zuzenak ezartzeko aukera ere badago. Aukera horren bidez, hautatutako eredu-ekitaldiaren arabera iragazitako adierazpenen zerrendara sartuko gara.




- **Lasterbideak** : Sarbide zuzena gehitzeko edo ezabatzeko, sarbide zuzenak editatzeko botoian sakatuko dugu. Horrek gaitu egingo ditu sarbide berria gehitzeko edo dagoeneko bazegoen bat ezabatzeko aukerak. Ekitaldi-eredu bat izan behar da instalatuta, haren sarbide zuzena sortu ahal izateko.

Maila berean, plataformak, OnLine egonez gero, jakinaraziko digu eredu-ekitaldi berriak ote dauden eskuragarri, eguneratze berriak eta/edo lanean jarraitu nahi badugu eguneratzera behartzen gaituzten eguneratze kritiko berriak.




Agertuko zaizkigun mezuak helburuaren erlaitzetarako sarbide zuzenak izango dira, alegia:


- **Eredu berriak:** Horrela, erabiltzaileei jakinaraziko zaie pakete berria dagoela eskuragarri deskargatzeko (normalean eredu-ekitaldia).




“Eredu berriak” gorrizko letren gainean sakatuz gero, plataformak “Instalazio eta eguneraketa” pantailako “Instalatu gabeak” erlaintzera eramango gaitu, eta beltzez markatuko ditu aurretik ikusi ez diren paketeak.




- **Eguneraketa kritikoak:** Horrela, erabiltzaileei jakinaraziko zaie pakete bat dagoela eguneratze kritikoarekin eskuragarri deskargatzeko. Pakete hori deskargatzen ez bada, ez da aukerarik egongo lanean jarraitzeko.




“Eguneraketa kritikoak” gorrizko letren gainean sakatuz gero, plataformak “Instalazio eta eguneraketa” pantailako “Eguneratu gabekoak” erlaintzera eramango gaitu, eta beltzez markatuko ditu aurretik ikusi ez diren paketeak.



- **Eguneraketa berriak:** Horrela, erabiltzaileei jakinaraziko zaie pakete bat dagoela eguneratzearekin eskuragarri deskargatzeko. Lanean jarrai daiteke, nahiz eta ez eguneratu.



“Eguneraketa berriak” gorrizko letren gainean sakatuz gero, plataformak “Instalazio eta eguneraketa” pantailako “Eguneratu gabekoak” erlaintzera eramango gaitu, eta beltzez markatuko ditu aurretik ikusi ez diren paketeak.





4 SORRERA ETA AURKEZPENA

4.1 Aurkezpen telematikoa programatik

Laguntza-programen plataforma berrian, egungo sistemetan eskuragarri dauden aukerez gainera, besteak beste, Inprimaki ofizialak sortzea (eta euskarria horretarako aukera ematen duten ereduetan) eta Internet bidez aurkezteko fitxategia sortzea, Zuzeneko Bidalketarako aukera gehitu da.

Aurkezlea aukeratu


Aurkezlea  

Aurkezpen mota


- Internet bidez aurkezteko fitxategia
 Inprimaki ofizialak (eta eredu batzuetan euskarria)
 Bidalketa zuzena

Aurkezpen telematikoaren aukerak

Inprimakiak dituen fitxategia

 C:\Users\AD28\Documents\BFA\Presentaciones\MOD_130\2017\INPRIMAKETAK\2017T01_00001430

Fitxategi telematikoa

 C:\Users\AD28\Documents\BFA\Presentaciones\MOD_130\2017\BIZKAIBAI\2017T01_00001430.130


Eredu bakoitzak zehaztuko du zein diren bere aukerak, eta ez du aukerarik emango inprimaki ofizialak sortzeko (ez eta euskarria ere) 110/111 eredurako, esate baterako.

- **Interneten bidez aurkezteko fitxategia:** Gaur egun adierazpen bat telematikoki aurkezteko modu bakarra fitxategia sortzea da, gero BizkaiBai bidez bidaltzeko.

Prozesua amaituta, plataformak adierazpenaren laburpena eta fitxategia zer bidetan utzi diren erakutsiko digu, gero telematikoki aurkezteko. PDFaren ikonoan sakatuz gero, bidearen eskuinaldean, zuzenean irekiko zaigu PDFa, eta dagokion ibilbidearen eskuinaldean fitxategi telematikoaren ikonoan sakatuta, karpeta edukitzailea irekiko zaigu, BizkaiBai bidez bidaltzen jarraitu ahal izateko.

- **Inprimaki ofizialak (eta eredu batzuetan euskarria):** Eredu batzuetan, aukera ematen da Ogasun eta Finantza Sailean eskuz aurkezteko adierazpenaren inprimakiak sortzeko. Aukera horretatik, inprimakiak aurkezteko egunaren eta lekuaren berri eman beharko dugu:

Inprimakiak aurkezteko aukerak

Data  Herria

Prozesua amaituta, plataformak erakutsiko dizkigu zer bidetan utzi diren inprimakiak eta, sortu bada, Ogasun eta Finantza Sailean aurkeztu ahal izateko euskarri-fitxategia. PDFaren ikonoan sakatuz gero, bidearen eskuinaldean, zuzenean irekiko zaigu PDFa, eta dagokion ibilbidearen eskuinaldean euskarriaren ikonoan sakatuta, fitxategia CD/DVD/USBan grabatu ahal izateko karpeta edukitzailea irekiko zaigu.

4.2 Aitortzaileen identifikazioa

Plataformatik, badago aukera identifikatzeko, zuzeneko bidalketak egiteko, zerga-datuak deskargatzeko (garatu gabe) eta aurkezten joango diren gainerako funtzionaltasunetarako.

Funtzionaltasun horretarako, ziurtagiri elektronikoa eduki beharko da, bai e-NANa, bai lizenpe, bai softwarea (p12). Segurtasunagatik, identifikazioa 30 minutuko iraupena izango du eta gero iraungi egingo da.

5 Informazio gehiago

5.1 BiLAren tauletara gehitutako funtzionaltasunak

Erabilera errazteko eta plataforma erabilgarria eta dinamikoa egiteko, BiLA plataformaren taula guztietarako utilitate batzuk prestatu dira, erabilgarriak izan daitezkeenak:

- o **CSV edo TXTra esportatzea**

Plataformako taula guztiek 2 ikono dituzte goialdean, eskuinean, goiburuen gainean, honako formatu honekin:




2 ikonoetako edozein sakatuz gero, programak ondoriozko fitxategiaren izena eskatuko digu eta iragazitako lerro guztiak esportatuko ditu (egonez gero) taulan TXT edo CSV fitxategi batean, hautatutakoaren arabera.

- o **Eremuen ordena**


Plataformako taula guztiek dute taula horretako zutabeetako eremuen arabera antolatze aukera. Horretarako, antolatze baliatuko dugun taularen goiburuko laukitxoan sakatuz gero, taula automatikoki antolatuko da.

“Klik egiteko” agindua honako hau da:

- Gorantz (saguaren ezkerreko botoiaren lehen klika).



- Beherantz (saguaren ezkerreko botoiaren bigarren klika).




- Ordenarik gabe (saguaren ezkerreko botoiaren hirugarren klika).

Aitorpenak

Zutabe bat baino gehiagoren arabera antolatu nahi izanez gero, teklatuko "Shift" tekla sakatu beharko dugu, eta tekla hori sakatuta dugula klik egin behar dugu antolatu nahi ditugun goiburuen gainean.

Zutabe horien ordena goiburuko laukitxoaren eskuinaldeko ikonoarekin agertuko da:




Adibide honetan, taula honela dago antolatuta:

1. *Gorantz Familia / Eduaren arabera*
2. *Beherantz Ekitaldiaren arabera*
3. *Beherantz Eskuragarri dagoen bertsioaren arabera*
4. *Gorantz Instalatutako bertsioaren arabera*

o Zutabeen ordena

Taulek ahalmena dute zutabeak erabiltzailearen gustura mugitzeko. Saguko ezkerreko botoia sakatuta izanik mugitu nahi dugun goiburuko laukitxoaren gainean eta nahi dugun zutabe-ordenara eramanda eta botoia askatuta, zutabea posizio horretara mugituko dugu taulan.

A horizontal menu bar with a dark blue background and white text. The word "Fitxak" is highlighted in a lighter blue color. To its right, the text "Aitorpenak" is visible, with "data" appearing below it.

Dokumentuaren amaiera



Sabino Arana, 44
48013 BILBAO (Bizkaia)

Tel – Telf: (+34) 944 068 900
Faxa - Fax: (+34) 944 068 800

lantik@bizkaia.net
<http://lantik.bizkaia.net>